ULERMENA TEST BIDEZ 8

1. Zuzendari berria berreskuratzekotan da idazkari ohiak auzitan jarri zuen urteetako lankidetza.
a) Ikuskizun dago zuzendari berriak idazkar ohiaren lankidetza berreskuratuko ote duen.
b) Zuzendari berriak idazkari ohiak utzitako auziak berreskuratzeko asmoa azaldu du.
c) Oraingo zuzendaria iritsi aurretik, idazkari ohiak auzitara eraman zuen urteetako lankidetza.
d) Idazkari ohiak ez bezala, zuzendariak urteetako lankidetzak irautea nahiko luke.

2. Guri ere, okerrenean, jakintsuenei gertatu ohi zaiena gertatuko zaigu: erdiz erdi huts egitea.
Bestela esanda:
a) Gauzak okertuz gero, zail litzateke guk erdiz erdi huts egitea.
b) Okerrenean guk ere, jakintsuek bezala, hutsegite txikiren bat edo beste izan dezakegu.
c) Guri ere, beharbada, jakintsuenei gertatu ohi zaiena gertatuko zaigu: bete-betean huts egitea.
d) Jakintsuenei gertatzen zaie eta guri ere gerta dakiguke hutsean geratzea.

3. Bakearen edertasuna musika tresna anitzen berezko izaera errespetatuz baino ez da lortzen.
a) Bakearen edertasuna erdiesteko nahitaezko da hainbat musika tresnaren berezko izaera errespetatzea.
b) Beharrezko da tresna anitzen berezko izaerari begirunerik ez izatea bakearen edertasuna lortzeko.
c) Musika tresnen izaera errespetatzea beharrezko da edertasuna lortzeko.
d) Bakea nekez lortuko duzu, baldin eta ez badiozu muzin egiten berezko izaerari.

4. Nire lanbideak Afrika iparraldera eraman nau, bereber hizkuntza ikastera eta aritzera: badakizue alderdi horietan arabiera ez dela nagusien kultur hizkuntza berria besterik. Hau da:
a) Afrika iparreko jatorrizko hizkuntza arabiera da.
b) Afrika iparrean ez da bereberea erabiltzen.
c) Afrika iparrean ez da arabieraz hitz egiten.
d) Afrika iparrean bereberez hitz egiten da.

5. Mende hasieran estatu europarren artean zegoen lehiak leherrarazi zuen lehen mundu gerra.
Hots:
a) Leherketa baten ondorioz etorri zen lehen mundu gerra.
b) Mende hasierak piztu zuen mundu gerraren garra.
c) Estatuen arteko norgehiagokak ekarri zuen gerra.
d) Europa batua lortzeko lehiak leherrarazi zuen gerra.

6. Araudiak baimentzen duen metal astun kopuruaren halako 700 dute petrolio eta gas enpresen inguruan bizi diren maputxeek gorputzean. Hots:
a) Baimendua baino metal astun gutxiago dago maputxeen gorputzean.
b) Maputxeen gorputzean ia ez dago metal astunik.
c) Metal astun gehiegi dago maputxeen gorputzean.
d) Maputxeen gorputzean metal astun gutxi dago.

7. Goitik behera aztertu ninduen, aspaldi ikusi gabeko lagun zaharra banintz bezala. Hau da:

a) Zahartuta ikusi banindu bezala aztertu ninduen.

b) Aspaldian ikusi gabeko laguna izango banintz bezala aztertu ninduen.

c) Aspaldi galdutako gaztetasuna gogora ekarri banio bezala begiratu zidan.

d) Aspaldi lagun zaharrak ginela ahaztu balu bezala, goitik behera begiratu zidan.

8. Benetako arazoa liburuan baino gehiago liburuaren beraren merkaturatze-moduetan datza. Beste era batera esanda:

a) Arazoa ez dago berez liburuan, baizik eta liburua merkatura bideratzeko moduan.

b) Liburuan dagoen benetako arazoa liburuen merkatuan dago.

c) Liburuen salmentan dago liburuen arazo nagusia.

d) Liburu merkatuen arazoa liburuan bertan dago, saltzeko moduan baino gehiago.

9. Errefrau elizkoi anitz, gehiegikeria ugariren bilduma izanagatik, ezin da ukatu ingurunearen behaketan oinarritzen direla.

a) Esaera zaharretan biltzen diren iritziek inguruko gehiegikeriei erreparatzen diete.

b) Ingunearen behaketak elizaren gehiegikeria anitz eragin zituen.

c) Gehiegikeriak gehiegikeria, errefrau elizkoi asko inguruaren ezagutzaren ondorio dira.

d) Bilduma anitzek elizaren errefrauak eta inguruaren behaketa uztartzen dituzte.

10. Gure herriko alkateak -musikazale amorratua bera- begi onez ikusi du areto berria egiteko proiektua. Hots:

a) Gure herriko alkateari ondo iruditu zaio areto berria egiteko proiektua.

b) Gure herriko alkateak begiz jo du areto berria egiteko proiektua.

c) Gure herriko alkateak amorruz ikusi du areto berria egiteko proiektua.

d) Gure herriko alkateari begietara eman dio areto berria egiteko proiektuak.

11. Gizakiok nekazari egin ginenean naturak zer emango zain gelditu ginen, eguraldiaren menpeko eta urte-sasoien gatibu. Bestela esanda:

a) Gizakiok nekazari egitean eguraldiak menpean hartu gintuen; ez, ordea, urte-sasoiek.

b) Urte-sasoien gatibu bihurtu ginen eta naturak zer emango zain gelditu nekazari izateari uztean.

c) Gizakiok nekazari egitean eguraldiaren eta urtesasoien morroi bihurtu ginen.

d) Naturak zer emango zain gelditu ginen eta eguraldia menpean hartu genuen.

12. Denbora gurpil ahul bat besterik ez da eta, beti berdina izan den ustea izan ez dezagun, ona da mugarriak jartzea. Bestela esanda:

a) Denbora beti berdina izan dela uste ez dezagun egokia da mugarriak jartzea.

b) Denbora gurpil sendoa izan ez arren, beti berdina izan ez den ustea baztertzeko on da mugarriak jartzea.

c) Denborari mugarriak jarri behar zaizkio beti berdina izan dela pentsa dezagun.

d) Denbora gurpil ahula dela uste izan dugu eta komeni da mugarriak jartzea.

ERANTZUNAK:
1D2C3A4D5C6C7B8A9C10A11CA